



TicketBAI
GIPUZKOAN | EN GIPUZKOA

**JULKITAKO FAKTUREN FITXATEGIAK
KONTSULTATZEA ETA DESKARGATZEA
GIDA AZKARRA**



AURKIBIDEA

1. FUNTZIONALITATE BERRIEN LABURPENA	3
2. INFORMAZIOA ESKURATZEKO URRATSAK	4
3. FITXATEGIEN EDUKIA	6
3.1. “LABURPEN ZERRENDA” DESKARGATZEA	6
3.2. “BEZARAKO ZERRENDA” DESKARGATZEA:	8
3.3. “ERROREDUN FAKTUREN ZERRENDA” ESKARGATZEA	13
4. ERANSKINAK	14
I. ERANSKINA: LABURPEN ZERRENDA	14
II. ERANSKINA: BEZARAKO ZERRENDA	15



Jaulkitako Fakturen Fitxategiak Kontsultatzea eta Deskargatzea Gida Azkarra

1. FUNTZIONALITATE BERRIEN LABURPENA

TicketBAI Ataria atariko **FAKTUREN KONTSULTA** aplikazioan hiru aukera sartu dira:

1. **"Laburpen zerrenda"**. Fitxategi bat sortzen du¹, Foru Ogasunean jaso diren fitxategiak kudeatu ahal izateko oinarriko informazioa, egon daitezkeen akatsak eta fakturak baliogabetu edo zuzendu egin diren jasotzen duena.
2. **"BEZarako zerrenda"**. Fitxategi bat sortzen du¹, BEZaren aitortpenak egiteko informazio erabilgarria jasotzen duena.
3. **"Erroredun fakturen zerrenda"**. Fitxategi bat sortzen du¹, akatsak dituzten jasotako fitxategiak jasotzen dituena.

Azken zerrenda hori bereziki garrantzitsua da, informazio eguneratua ematen baitu akatsak dituzten fitxategiekin egin beharreko ekintzaren inguruan:

- a. Ordezteko faktura zuzentzaile bat egitea².
- b. ZUZENDU fitxategi bat bidaliz aldatzea.

Akastun fakturen informazioak aukera ematen du hauek bereizteko:

- *Akatsak zituzten fakturak, haiekin hau egin denean:*
 - o *Baliogabetu*
 - o *Faktura zuzentzaile baten bidez zuzendu*
- *Akatsak dituzten fakturak, oraindik zergadunak horiekin ekintzarik egin ez duenean*

Zergadunaren erantzukizuna da igorritako fakturetan jasanarazitako kuotak behar bezala aitortzea, "Xml" fitxategia atzera bota bada edo zuzentzeke dauden akatsak baditu ere.

¹ ".xlsx" formatuko fitxategia

² BEZ aitortpenerako datuak zuzenak izateko, akastun faktura bat faktura zuzentzaile batek zuzentzen duenean, ordezteko modalitatea erabili behar da, eta "Xml" ko informazioan zuzendutako oinarria eta kuotak Ora adierazi behar dira, nahiz eta fakturaren dokumentuan zuzendutako oinarria eta kuotak adierazi.

2. INFORMAZIOA ESKURATZEKO URRATSAK

Behar bezala identifikatu ondoren, sar zaitez **Gipuzkoatariaren** barruan **TicketBAI Ataria** atarira.

The screenshot shows the 'TRAMITEAK ONLINE' interface. On the right, the breadcrumb path is 'Ogasuna eta Finantzak > TicketBAI >'. Below this, under 'Zerbitzu bilatzailea', there are filters for 'Testu bidezkoa', 'Sail bidezkoa', and 'Gogokoak (6)'. A list of services is shown under 'Ogasun eta Finantzak', with 'TicketBAI Ataria' highlighted by a red box. A blue arrow points from the 'Ziurtagiria eta BakQ' section towards the highlighted service.

TicketBAI Ataria atariaren barruan, **TicketBAI fakturen kontsulta** atala topatuko duzu.

The screenshot shows the 'TICKETBAI ATARIA' dashboard. At the top, it says 'TicketBAI Ataria atariaren barruan, sar zaitez TicketBAI fakturak kontsultatzeko atalean.' Below this, there are six service tiles, each with a 'SARTU' button. The first tile, 'TicketBAI fakturen kontsulta', is highlighted with a blue border. Other tiles include 'FakturaBAI', 'Gailuen erregistroa', 'TicketBAI fitxategien importazioa', 'Jakinarazpen eta komunikazioak', and 'TicketBAI idazkiak'.

Sartzeko hasierako pantailan, zergadun motaren berri ematen da, eta hiruhileko batean igorritako faktura kopuruaren arabera, kontsulta bakarrean kontsulta daitekeen **gehieneko denbora tartea** adierazten da.

Kontsulta- pantailak aukera ematen dizu:

- Erregistratu diren azken fakturen zerrenda ikusteko ("*TicketBAIn erregistratutako azken fakturak*").
- Erroreak dituzten azken fakturen zerrenda ikusteko ("*TicketBAIn erregistratutako azken fakturak erroreekin*").
- Goian adierazitako **gehieneko denbora tartea**ren, jaulkipen data edo eragiketa dataren arabera bilaketa.
- Fakturaren seriea edo zenbakiaren arabera bilaketa zehatzak egitea.

Erantzun fitxan, informazioa deskargatzeko, hiru aukera hauek daude (1. Puntuan laburtu direnak). Horien edukia hurrengo atalean garatuko da

- Laburpen zerrenda
- BEZarako zerrenda
- Erroredun fakturen zerrenda

Hiru aukeretako bakoitzean (*Laburpen zerrenda*, *BEZarako zerrenda* eta *Erroredun fakturen zerrenda*) fitxategi bat deskargatuko da³, zure kalkulu tresnarekin kudeatu ahalko duzuna.

Oharra: deskarga bakoitzeko gehienez ere 1.000 faktura eskuratuko dira. Informazioa 1.000ko bloketan deskarga daiteke, hainbat kalkulu orritan, eta horiek bateratu gero.

³ “.xlsx” formatuko fitxategia



3. FITXATEGIEN EDUKIA

3.1. "LABURPEN ZERRENDA" DESKARGATZEA

- Faktura bakoitza lerro bakarrean irudikatuko da; bertan adieraziko da I. eranskinean zerrendatutako informazioa.

▪ JATORRIA

- Eremuan **ALTA** jartzen badu, bidalitako jatorrizko fitxategia da.
- **ZUZENDU Aldaketa** agertzeak esan nahi du eguneratu egin dela jatorrizko fitxategiaren informazioa, ZUZENDU Aldaketa fitxategian oinarrituta, eta azken bertsioa ageri dela. Fakturaren fitxaren *Historia* atalean historia osoa dago eskura.

Jatorria	Erroreak	Balio gabetua/Zuzendua	Fakturaren jaulkipen data	Fakturaren jaulkipen ordua	Mota	Hartzailea (K)	Zerga-oinarria / Zenbaketakoa	BEZ Kuota	Faktura guztira	Zuzendutako zenbatekoa	Ekintzak
Alta	Ez	Aldatua	2023/01/25	13:37:35	R5 - S		55,00	11,55	66,55	0,50	
ZUZ-M	Ez		2023/01/25	13:37:35	R5 - S		55,00	11,55	66,55	0,00	

1 -etik 2 -erako erregistroak erakusten, guztira 2 erregistro

Aurrekoa 1 Hurrengoa

- **ZUZENDU Konponketa** agertzeak esan nahi du fitxategia ZUZENDU Konponketa Zerbitzutik datorrela, eta hori jaso egingo zela jasotze balioztapenak gainditu ez dituelako atzera bota den fitxategi bat bidali ondoren.



■ AKASTUN FAKTURAK

- “**ERROREAK**” zutabeen “**Bai**” agertuko da jasotako fitxategiek akatsak badituzte.
- Akastun faktura bat ZUZENDU Aldaketa fitxategi batek aldatzen duenean eta akatsak edukitzeari uzten dionean, **JATORRIA** eremua eguneratu egingo da, eta **ZUZENDU Aldaketa** ageriko da. “**ERROREAK**” zutabeen “**Ez**” agertuko da.

■ BALIOGABETUA/ZUZENDUA

- Faktura bat baliogabetuz gero (**BALIOGABETU** fitxategi baten bidez) edo zuzenduz gero (faktura zuzentzaile batekin), “**Baliogabetua**” edo “**Zuzendua**” hitza agertuko da fitxategiaren C zutabeen. Bestela, zutabea hutsik geldituko da.

■ DATU EKONOMIKOAK

Honako datu hauek ageri dira:

- **Fakturaren guztira**: fakturaren guztizko zenbatekoa.
- **Zerga oinarria/Zenbatekoa**: zerga oinarri salbuetsi eta salbuetsi gabeen, subjektu pasiboa alderantzikatuta dutenen eta atxiki gabeen, fakturaren xehakapenetan jasotakoen, batura.
- **BEZaren kuotak**: fakturan jasotako BEZ kuoten batura.
- **Baliokidetasun Errekarguaren kuotak (RE)**: fakturan jasotako baliokidetasun errekararen kuoten batura.
- **Fakturaren guztira**: fakturaren guztizko zenbatekoa.
- **Zuzendutako zenbatekoa**: oinarri eta kuota zuzenduen batura, ordezteko faktura zuzentzaileetan.
- **Jasandako atxikipena**
- **Errore kodeak**: erroreei dagozkien kodeak adieraziko dira, puntu eta komaz bereizita.



3.2. “BEZARAKO ZERRENDA” DESKARGATZEA:

- Faktura bakoitzaren (seriearekin eta zenbakiarekin identifikatuta), II. eranskinaren taulan zehaztutako zerga informazioa adieraziko da.

▪ FAKTURA BATEK HAINBAT LERRO SOR DITZAKE:

- Faktura bakarrak BEZaren hainbat zerga tasa/baliokidetasun errekgua duten eragiketak jasotzen dituenean, edo hainbat eragiketa mota, lerro bat sortzen da zerga tasa bakoitzeko eta/edo eragiketa mota bakoitzeko. Faktura bakoitzaren informazio komuna (*ekitaldia, zergaldia, jatorria, egoera, akatsak, faktura mota, identifikazioa, jaulkitze data, eragiketa data, hartzailearen identifikazioa, BEZaren gakoak*) lerro bakoitzean errepikatzen da errazago identifikatzeko.
- “*Fakturaren guztizkoa*”, nahiz eta fakturarako datu bakarra den, hainbat lerro dituzten fakturretan azkenengoan bakarrik agertzen da.
- Ordezteko faktura zuzentzaileetan, oinarri eta kuota zuzenduak lerro gehigarri batean ageri dira.
- Hondo zuria/grisa erabiltzen dira, txandaka, faktura baten eta bestearen lerroak bereizteko.

	A	B	C	D	E	F	G	H
1								
2	Ekitaldia	Aldi	Jatorria	Erroreak	Baliogabetua/Zuzendua	Faktura mota	Seriea	Zenbakia
3	2023	1	Alta	EZ		F1	TB-2023-F	1
4	2023	1	Alta	EZ		R1S	TB-2023-Z	1
5	2023	1	Alta	EZ		R1S	TB-2023-Z	1
6	2023	1	Alta	EZ		F1	TB-2023-F	2
7	2023	1	Alta	EZ		F1	TB-2023-F	2
8	2023	1	Alta	EZ		F1	TB-2023-F	3
9	2023	1	Alta	EZ		F1	TB-2023-F	3

▪ EKITALDIA ETA ZERGALDIA:


Likidazio ekitaldia eta zergaldia **ERAGIKETA DATA**ren⁴ arabera kalkulatu da, jarraian zerrendatutako salbuespenetan izan ezik; orduan, TicketBAI fitxategietan emandako informazioaren arabera **JAULKITZE DATA**ri dagokion likidazio ekitaldia eta zergaldia esleituko zaio:

- R1, R2, R3 eta R5 motako faktura zuzentzaileak
- Faktura osoak (F1) negatiboak (<0)

Faktura zuzentzaileentzat eta faktura negatiboentzat esleitutako "Ekitaldia" eta "Zergaldia" zutabeak gutxi gorabeherakoak dira. Zergadunaren ardura izango da likidazio ekitaldi eta zergaldi gokia zehaztea.

▪ JATORRIA

- Eremuan **ALTA** jartzen badu, bidalitako jatorrizko fitxategia da.
- **ZUZENDU Aldaketa** agertzeak esan nahi du eguneratu egin dela jatorrizko fitxategiaren informazioa, ZUZENDU Aldaketa fitxategian oinarrituta, eta azken bertsioa ageri dela. Fakturaren fitxaren *Historia* atalean historia osoa dago eskura.



Jatorria	Erroreak	Baliogabetua/Zuzendua	Fakturaren jaulkipen data	Fakturaren jaulkipen ordua	Mota	Hartzaillea (k)	Zerga-oinarria / Zenbaketakoa	BEZ Kuota	Faktura guztira	Zuzendutako zenbaketakoa	Ekintzak
Alta	Bai	Aldatua	2023/02/07	10:25:10	F1	FROGAKO BEZEROA	200,00	14,00	214,00	0,00	[🔍]
ZUZ-M	Ez		2023/02/07	10:25:10	F1	FROGAKO BEZEROA	200,00	14,00	214,00	0,00	

1-etik 2-erako erregistroak erakusten, guztira 2 erregistro

Aurrekoa 1 Hurrengoa

- **ZUZENDU Konponketa** agertzeak esan nahi ZUZENDU Konponketa Zerbitzutik datorrela, eta hori jaso egingo zela harrera baliozkotzeak gainditu ez dituelako atzera bota den fitxategi bat bidali ondoren.

⁴ Kutxa Irizpidearen araubide bereziari atxikitako zergadunen kasuan, ekitaldiaren eta zergaldiaren eremuek ez dute informaziorik izango, horiek kobrantzaren unearen datuaren mendean baitaude, eta informazio hori ez dago jasota zergadunak bidalitako TicketBAI fitxategietan.



AKASTUN FAKTURAK

- “**ERROREAK**” zutabean “**Bai**” agertuko da jasotako fitxategiek akatsak badituzte.
- Fakturen identifikazio datuak bakarrik ageri dira, eta ez ekonomikoak. Itzal gorria dute.

	A	B	C	D	E	F	G	H
1								
2	Ekitaldia	Aldi	Jatorria	Erroreak	Baliogabetua/Zuzendua	Faktura m	Seriea	Zenbakia
3	2023	1 Alta	EZ			F1	TB-2023-F	1
4	2023	1 Alta	EZ			R1S	TB-2023-Z	1
5	2023	1 Alta	EZ			R1S	TB-2023-Z	1
6	2023	1 Alta	EZ			F1	TB-2023-F	2
7	2023	1 Alta	EZ			F1	TB-2023-F	2
8	2023	1 Alta	EZ			F1	TB-2023-F	3
9	2023	1 Alta	EZ			F1	TB-2023-F	3
10	2023	1 Alta	BAI			F1	TB-2023-F	4
11	2023	1 Alta	EZ			F1	TB-2023-F	5
12	2023	1 Alta	EZ			F1	TB-2023-F	5
13	2023	1 Alta	EZ			R1I	TB-2023-Z	2

- Faktura horien informazio osoa “Akastun fakturen zerrenda” deskargatzean agertuko da (fakturak kontsultatzeko hirugarren aukera).
- Akastun faktura bat ZUZENDU Aldaketa fitxategi batek aldatzen duenean eta akatsak edukitzeari uzten dionean, *JATORRIA* eremua eguneratu egingo da, eta *ZUZENDU Aldaketa* ageriko da. “**ERROREAK**” zutabean “**Ez**” agertuko da. Itzal gorria kenduko zaio, eta datu ekonomikoak agertuko dira.

	A	B	C	D	E	F	G	H
1								
2	Ekitaldia	Aldi	Jatorria	Erroreak	Baliogabetua/Zuzendua	Faktura m	Seriea	Zenbakia
52	2023	1 Zuzendu M	EZ			R5S	TB-2023-ZS	4
53	2023	1 Zuzendu M	EZ			R5S	TB-2023-ZS	4
54	2023	1 Zuzendu M	EZ			R5S	TB-2023-ZS	4
88	2023	2 Zuzendu M	EZ			F1		111777
89	2023	2 Zuzendu M	EZ			F1		111777



■ BALIOGABETUA/ZUZENDUA

- Faktura bat baliogabetuz gero (*BALIOGABETU* fitxategi baten bidez) edo zuzenduz gero (faktura zuzentzaile batekin), "**Baliogabetua**" edo "**Zuzendua**" hitza agertuko da E zutabearen. Bestela, zutabea hutsik geldituko da.

	A	B	C	D	E	F	G	H
1	Ekitaldia	Aldi	Jatorria	Erroreak	Baliogabetua/Zuzendua	Faktura m	Seriea	Zenbakia
55	2023	1	Alta	EZ	Baliogabetua	F1	TB-2023-F	9
56	2023	1	Alta	EZ		R1S	TB-2023-Z	8
57	2023	1	Alta	EZ		R1S	TB-2023-Z	8
58	2023	2	Alta	BAI	Zuzendua	F1	2023-F	8
59	2023	1	Alta	EZ		R5S	TB-2023-ZS	6
60	2023	1	Alta	EZ		R5S	TB-2023-ZS	6
61	2023	1	Alta	EZ		R5S	TB-2023-ZS	6
62	2023	2	Alta	EZ		R5S	TB-2023-ZS	7
63	2023	2	Alta	EZ		R5S	TB-2023-ZS	7
64	2023	2	Alta	EZ		R5S	TB-2023-ZS	8
65	2023	2	Alta	EZ		R5S	TB-2023-ZS	8
66	2023	2	Alta	EZ		R5S	TB-2023-ZS	8
67	2023	1	Alta	EZ		F2	TB-2023-S	7
68	2023	1	Alta	EZ		F2	TB-2023-S	7
69	2023	2	Alta	EZ	Zuzendua	F1	TB-2023-F	10
70	2023	2	Alta	EZ	Zuzendua	F1	TB-2023-F	10

■ DATU EKONOMIKOAK

- a) Fakturen datu ekonomikoak (*zerga oinarria/atxiki gabeko zenbatekoa, BEZaren kuotak eta Baliokidetasun Errekarguaren kuotak*) hiru bloketan multzokatu dira (kolore urdinezko, gorrizko eta grisezko goiburuekin bereziak), BEZaren aitortpena errazago egiteko:

- **BEZaren araubide orokorra, Baliokidetasun Errekarguaren Araubide Berezia (BEAB), Araubide Sinplifikatua (ASIN), Nekazaritza, Abeltzaintza eta Arrantzako Araubide Berezia izan ezik** (*Goiburu urdineko zutabeak - W-X-Y zutabeak*):

Zerga oinarriak/atxiki gabeko zenbatekoak ageri dira, eta, hala badagokio, BEZaren kuotak eta Baliokidetasun Errekarguaren kuotak, hauei dagozkienak:

- Zuzentzaileak ez diren faktura igorriak.
 - Negatiboak ez diren fakturak.
 - Baliokidetasun Errekarguaren araubide berezian (BEAB), Araubide sinplifikatuan (ASIN) edo Nekazaritza, Abeltzaintza eta Arrantzako Araubide Berezian, egin ez diren fakturak
- **Oinarrien eta kuoten aldaketak** (*Goiburu gorriko zutabeak - Z-AA-AB zutabeak*).

Honako hauek adierazten dira:

- Faktura zuzentzaileetako zerga oinarriak/atxiki gabeko zenbatekoak, BEZaren kuotak eta baliokidetasun



errekarguaren kuotak (ezberdintasunagatikoenak eta ordeztzekoenak)

- Ordezteko faktura zuzentzaileen oinarri eta kuota zuzenduak. Zeraz besteko oinarri eta kuota zuzenduak direnez, kalkulua errazteko, emandako zeinuaren kontrakoa dute.
 - Zerga oinarriak/zenbateko atxiki gabeak ageri eta, hala badagokio, BEZaren kuotak eta Baliokidetasun Errekarguaren kuotak, faktura negatiboak dagozkienak.
 - Horietako batek ere ezin du eduki Baliokidetasun Errekarguaren araubide berezian (BEAB) edo Araubide sinplifikatuan (ASIN) egindako eragiketaren markarik.
- **Baliokidetasun Errekarguaren araubide bereziko (BEAB), Araubide Sinplifikatuko (ASIN) edo Nekazaritza, Abeltzaintza eta Arrantza Araubide Berezian (NAAAB) Araubide Berezian** egindako eragiketak (*goiburu griseko zutabeak - AC-AD-AE-AEF zutabeak*).
- Baliokidetasun Errekarguko araubide berezian, Araubide sinplifikatuan edo Nekazaritza, Abeltzaintza eta Arrantza Araubide Berezian igorritako fakturen oinarriak eta kuotak adieraziko dira, edozein faktura motatakoak direla ere⁵.

b) Ez dira agertuko hauen datu ekonomikoak:

- Faktura sinplifikatuak ordezteko igorritako fakturak (F3)
- Faktura baliogabetuak
- Akastun faktura (itzal gorri agertzen dira *ekitaldiari, zergaldiari, jatorriari, egoerari, akatsei, faktura motari eta fakturaren identifikazioari* dagozkion datuak)

⁵ Zeraz besteko oinarri eta kuota zuzendua dituen ordezteko faktura zuzentzaile batek bi xehakapen mota dituenean, adibidez, bata BEABen edo ASINen eta beste bat ez dena ez BEABen ez ASINen, adibidez, araubide orokorreko bat, erabaki da informazio hori BEABeko, ASINeko edo NAAAB Eragiketen blokean jasoko dela, baina zergadunak berak izango du eragiketa zuzen aitortzeko ardura.



3.3. “ERROREDUN FAKTUREN ZERRENDA” ESKARGATZEA

- Sortutako fitxategian kontsulta egin denean dauden akastun fakturen informazio guztia jasotzen da, honela bereizita:
 - *Akatsak zituzten fakturak, haiekin hau egin denean:*
 - *Baliogabetu*
 - *Faktura zuzentzaile baten bidez zuzendu*
 - *Akatsak dituzten fakturak, oraindik zergadunak horiekin ekintzarik egin ez duenean.*

Puntu horretan, fitxategi honen garrantziari buruzko bi alderdi nabarmendu behar dira, sarreran aipatutakoak:

- Dagokion ekintza egiteko helburuarekin (ZUZENDU Aldaketa fitxategi bat bidaliz edo ordezteko faktura zuzentzaile bat eginez, **Xml-ren informazioan**, zuzendutako oinarria eta kuotak zerora adieraziz, fakturaren dokumentuan oinarria eta zuzendutako kuotak adierazi behar badira ere).
 - **Zergadunaren erantzukizuna da igorritako fakturetan jasanarazitako kuotak behar bezala aitortzea, “.xml” fitxategia atzera bota bada edo akatsak baditu ere.**
- Fitxategiak “BEZarako zerrenda”ren egitura bera du (II. eranskina), eta fakturaren datu guztiak erakusten dira, datu ekonomikoak barne.

4. ERANSKINAK

I ERANSKINA: LABURPEN ZERRENDA

ZUTABEAK	DATA		
A	JATORRIA	Alta Zuzendu Aldatu Zuzendu konpondu	
B	ERROREAK	Bai	Baliozkotze akatsak ditu
		Ez	Ez du baliozkotze akatsik ditu
C	BALIOGABETUA/ZUZENDUA	Baliogabetua	Baliogabetze fitxategi batek baliogabetutako faktura
		Zuzendua	Faktura zuzentzaile batek zuzendutako faktura
D	FAKTURA MOTA	F1	Faktura osoa
		F2	Faktura sinplifikatua
		F3	Faktura sinplifikatuak ordezteko igorritako fakturak
		R1S	Ordezteko faktura zuzentzailea. Zuzenbideko akatsa eta BEZLaren 80.Bat, Bi eta Sei artikulua
		R1I	Ezberdintasunagatiko faktura zuzentzailea. Zuzenbideko akatsa eta BEZLaren 80.Bat, Bi eta Sei artikulua
		R2S	Ordezteko faktura zuzentzailea. BEZLaren 80.Hiru artikulua: konkurtsoa
		R2I	Ezberdintasunagatiko faktura zuzentzailea. BEZLaren 80.Hiru artikulua: konkurtsoa
		R3S	Ordezteko faktura zuzentzailea. BEZLaren 8.Lau artikulua: zor kobraezina
		R3I	Ezberdintasunagatiko faktura zuzentzailea. BEZLaren 8.Lau artikulua: zor kobraezina
		R4S	Ordezteko faktura zuzentzailea. Gainerakoa.
		R4I	Ezberdintasunagatiko faktura zuzentzailea. Gainerakoa.
		R5S	Ordezteko faktura zuzentzaile sinplifikatua
R5I	Ezberdintasunagatiko faktura zuzentzaile sinplifikatua		
E- F	FAKTURAREN IDENTIFIKAZIOA	Seriea-Zenbakia	
G	JAULKIPEN DATA	Fakturaren igortze edo jaulkitze data	
H	JAULKIPEN ORDUA	Fakturaren jaulkitze edo igortze ordua	
I	ERAGIKETA DATA	Eragiketa egin zen eguna.	Jakinarazten ez bada jaulkitze dataren berbera delako, horrekin betetzen da.
J-K	HARTZAILEAREN IDENTIFIKAZIOA	Hartzaile(ar)en IFZ Hartzaile(ar)en izendapen soziala	
L	FAKTURAR GUZTIRA	Fakturaren guztizko zenbatekoa	
M	ZERGA OINARRIA/ ZENBATEKOA	Batura, zerga oinarriena, atxiki gabeko zenbatekoena, zerga oinarri salbuetsiena eta subjektu pasiboa alderantzikatuta duten zerga oinarriena, fakturen xehakapenetan jasotakoena.	
N	BEZ KUOTA	Fakturan jasotako BEZ kuoten batura.	
O	BE KUOTA	Fakturan jasotako Baliokidetasun Errekarguaren kuoten batura.	
P	ZUZENDUTAKO ZENBATEKOA	Oinarri zuzenduaren eta kuota zuzenduen batura, ordezteko faktura zuzentzaileetan jasotakoena.	
Q	JASANDAKO ATXIKIPENA		
R	ERRORE KODEAK	Fitxategiek dituzten TicketBAI erroreen kodeak	

II. ERANSKINA: BEZARAKO ZERRENDA

ZUTABEAK	DATA			
A	EKITALDIA	ERAGIKETA DATA ri dagozkion likidazio ekitaldia eta zergaldia adieraziko da. Salbuespenak, zeintzuei JAULKITZE DATARI dagozkion likidazio ekitaldia eta zergaldia adieraziko zaizkien. - R1, R2, R3, R5 - F1 < 0		
B	ALDIA			
C	JATORRIA	Alta Zuzendu Aldatu Zuzendu konpondu		
D	ERROREAK	Bai	Baliozkotze akatsak ditu	
		Ez	Ez du baliozkotze akatsik	
E	BALIOGABETUA/ZUZENDUA	Baliogabetua	Baliogabetze fitxategi batek baliogabetutako faktura	
		Zuzendua	Faktura zuzentzaile batek zuzendutako faktura	
F	FAKTURA MOTA	F1	Faktura osoa	
		F2	Faktura sinplifikatua	
		F3	Faktura sinplifikatuak ordezteko igorritako fakturak	
		R1S	Ordezteko faktura zuzentzailea. Zuzenbideko akatsa eta BEZLaren 80.Bat, Bi eta Sei artikulua	
		R1I	Ezberdintasunagatiko faktura zuzentzailea. Zuzenbideko akatsa eta BEZLaren 80.Bat, Bi eta Sei artikulua	
		R2S	Ordezteko faktura zuzentzailea. BEZLaren 80.Hiru artikulua: konkurtsoa	
		R2I	Ezberdintasunagatiko faktura zuzentzailea. BEZLaren 80.Hiru artikulua: konkurtsoa	
		R3S	Ordezteko faktura zuzentzailea. BEZLaren 8.Lau artikulua: zor kobraezina	
		R3I	Ezberdintasunagatiko faktura zuzentzailea. BEZLaren 8.Lau artikulua: zor kobraezina	
		R4S	Ordezteko faktura zuzentzailea. Gainerakoa.	
		R4I	Ezberdintasunagatiko faktura zuzentzailea. Gainerakoa.	
		R5S	Ordezteko faktura zuzentzaile sinplifikatua	
R5I	Ezberdintasunagatiko faktura zuzentzaile sinplifikatua			
G, H	FAKTURAREN IDENTIFIKAZIOA	Seriea Zenbakia		
I	JAULKIEN DATA	Fakturaren igortze edo jaulkitze data		
J	ERAGIKETA DATA	Eragiketa egin zen eguna.	Jakinarazten ez bada jaulkitze dataren berbera delako, horrekin betetzen da.	
K, L, M, N	HARTZAILEAREN IDENTIFIKAZIOA	Identifikazio mota	01	IFZ
			02	IFZ - BEZ
			03	Pasaportea
			04	Identifikazio dokumentu ofiziala
			05	Bizitoki ziurtagiria
			06	Beste frogia dokumentu bat
		Herrialde kodea IFZ/Identifikazio kodea Izena		



O	ERAGIKETA MOTA Xehakapen mota eta xehetasunak (atxikia eta salbuetsi gabea, atxikia eta salbuetsia eta atxiki gabea)	S1	Atxikia eta salbuetsi gabea, SPI gabea				
		S2	Atxikia eta salbuetsi gabea, SPIduna				
		E1	Atxikia eta salbuetsia, 20. art.				
		E2	Atxikia eta salbuetsia, 21. art.				
		E3	Atxikia eta salbuetsia, 22. art.				
		E4	Atxikia eta salbuetsia, 23. eta 24. art.				
		E5	Atxikia eta salbuetsia, 25. art.				
		E6	Atxikia eta salbuetsia, bestelako kausak				
		OT	Atxiki gabea, 7., 14. artikulua eta beste batzuk				
		RL	Atxiki gabea, lokalizazio arauak tarteko				
P, Q, R	BEZ GAKOAK (1, 2, 3) BEZ araubideko gakoak eta zerga garrantziko eragiketak	01	Araubide orokorreko eragiketa				
		02	Esportazioa				
		03	Erabilitako ondasunen, arte objektuen, zaharkinen eta bilduma objektuen araubide berezia				
		04	Inbertsiorako urrearen araubide berezia				
		05	Bidaia agentzien araubide berezia				
		06	Entitate taldeen araubide berezia (maila aurreratua)				
		07	Kutxa irizpidearen araubide berezia				
		08	EZIZ/KZZOari lotutako eragiketak				
		09	Besteren izenean eta kontura ari diren bidaia agentziek egindako prestazioak				
		10	Hirugarrenen konturako kobrantzak, ordainsari profesionalenak edo jabetza industrialetik, autorearenetik edo bestelakoetatik eratorritako eskubideenak				
		11	Negozio lokala errentatzeko eragiketak, atxikipenari lotuak				
		12	Negozio lokala errentatzeko eragiketak, atxikipenari lotu gabeak				
		13	Negozio lokala errentatzeko eragiketak, atxikipenari lotuak eta lotu gabeak				
		14	Hartzailea administrazio publiko bat denean ordaintzeke dauden BEZdun fakturak, obra ziurtagirietakoak				
15	Segidako traktuko eragiketetan ordaintzeke dagoen BEZdun faktura						
17	OSS eta IOSS araubideetakoaren bati atxikitako eragiketa						
19	Nekazaritzako, Abeltzaintzako eta Arrantzako araubide bereziko eragiketa (AAAB)						
51	Baliokidetasun errekararen araubide bereziko eragiketa (BEAB)						
52	Araubide berezi sinplifikatuko eragiketa (ASIN)						
53	BEZaren ondorioetarako enpresaburu edo profesionaltzat jotzen ez diren pertsona edo erakundeek egindako eragiketak						
S	ERAGIKETAREN XEHAKAPENA	Ondasun ematea Zerbitzu ematea					
T	FAKTURAREN GUZTIZKOA	Fakturaren guztizko zenbatekoa. Fakturak hainbat lerro baditu, azkenengoan ageri da.					
U	BEZ MOTA	% 21	% 10	% 5	% 4	% 0	
V	BALIOKIDETASUN ERREKARGU MOTA	% 5,20	% 1,75	% 1,40	0,62%	% 0,50	% 0,00



W, X, Y	BEZ OROKORREKO ERAGIKETAK (BEAB ETA ASIN IZAN EZIK)	Zerga oinarria BEZ kuota BE kuota	Faktura osoak eta sinplifikatuak, hauek izan ezik: <ul style="list-style-type: none"> - Faktura zuzentzaileak - Faktura negatiboak - AC zutabearen S marka duten fakturak 	
Z, AA, AB	OINARRIAK ETA KUOTAK ALDATZEA (BEAB, ASIN, NAAAB izan ezik)	Oinarri aldatua BEZ aldatua BE aldatua	Faktura zuzentzaileak eta faktura negatiboak BEAB, ASIN NAAAB izan ezik Zeraz besteko oinarria eta/edo kuota duten faktura zuzentzaileak: zuzendutako oinarria eta kuota agertuko dira, adierazitakoaren kontrako zeinuarekin	
AC, AD, AE, AF	BALIOKIDETASUN ERREKARGUAREN ARAUBIDE BERZIA (BEAB) ARAUBIDE SINPLIFIKATUA (ASIN) NEKAZARITZA, ABELTZAINZA ETA ARRANTZA ARAUBIDE BEREZIA (NAAAB)	AC (zut.)	BEAB/ ASINeko eragiketak= S	Baliokidetasun errenerguko araubidean edo araubide sinplifikatuan jaulkitako faktura bat dela zehazteko marka
		AD, AE, AF (zut.)	Zerga oinarria BEZ kuota BE kuota	Faktura osoak, faktura sinplifikatuak eta faktura zuzentzaileak.